CONSEJO VASCO DE LA ABOGACÍA
12 NOV 2012
ENTRADA

# JUNTAS GENERALES DE ALAVA
# ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

PRESIDENTE
LEHENDAKARIA

Erregistro-zenbakia: 09S0028475
2012ko azaroaren 7a
Espediente zenbakia: 09/C/09/0001390

Nº Registro de salida: 09S0028475
7 de noviembre de 2012
Nº de expediente: 09/C/09/0001390

Arabako Biltzar Nagusiek, 2012ko azaroaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

**70/2012 MOZIOA, AZAROAREN 5EKOA, TASA JUDIZIALEAN LEGE PROIEKTUARI BURUZKOA.**

LEHENENGOA.- Arabako Biltzar Nagusiak beste tasa judizial batzuk ezartzearen edo daudenak handitzearen aurkakoak dira; hori dela-eta, oinarrizko konstituzio eskubideak urratzen diren heinean (adibidez, babes judizial eraginkorrarena), Tasa Judizialen lege proiektuaren, Popular Alderdiaren Gobernuak proposatuaren, aurka agertu dira erabat.

BIGARRENA.- Arabako Biltzar Nagusiek herritar guztien babes judizial eraginkorraren aldekoak dira, inolako bazterketarik egin gabe eta maila ekonomikoa edozein izanda ere.

HIRUGARRENA.- Arabako Biltzar Nagusiek Mariano Rajoyren Gobernuari eskatu diote berehala bertan behera utz dezala Tasa Judizialen lege proiektua.

LAUGARRENA.- Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatu diote Konstituzio Auzitegian konstituziokontrakotasuneko errekurtsoa aurkez dezala azkenean onetsiko duten Tasen legea dela-eta.

BOSGARRENA.- Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritza berriari eskatu diote doako laguntza juridikoari buruzko ekainaren 19ko 101/2012 Dekretua, Eusko Jaurlaritzak onetsitakoa, berrikus dezala eta, hala badagokio, alda dezala, kontuan izanik Euskadiko Abokatuen Elkargoek aplikatzeko orduan zer nolako arazo antzeman dituzten.

SEIGARRENA.- Mozio hau Espainiako Gobernuko lehendakaritzara, Justizia Ministeriora, Diputatuen Kongresuko bozeramaileei, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorrera, Abokatutzaren Euskal Kontseilura eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetara bidaliko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 5a
LEHENDAKARIA

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 5 de noviembre de 2012, aprobaron la siguiente moción:

**MOCIÓN 70/2012, DE 5 DE NOVIEMBRE, EN RELACIÓN CON EL PROYECTO DE LEY DE TASAS JUDICIALES.**

PRIMERO.- Las Juntas Generales de Álava se manifiestan contrarias a la imposición de nuevas tasas judiciales o al aumento de las existentes y por ello, toda vez que se vulneran derechos constitucionales básicos como la tutela judicial efectiva, muestran su firme y contundente oposición al proyecto de ley de Tasas Judiciales propuesto por el Gobierno del Partido Popular.

SEGUNDO.- Las Juntas Generales de Álava, abogan por la tutela judicial efectiva para todos los ciudadanos, sin ningún tipo de discriminación, e independientemente de su nivel económico.

TERCERO.- Las Juntas Generales de Álava solicitan al Gobierno de Mariano Rajoy la inmediata retirada del proyecto de ley de Tasas Judiciales.

CUARTO.- Las Juntas Generales de Álava instan al Gobierno Vasco a plantear recurso de inconstitucionalidad ante el Tribunal Constitucional frente a la ley de Tasas, que finalmente resulte aprobada.

QUINTO.- Las Juntas Generales de Álava instan al nuevo Gobierno Vasco a revisar, y en su caso, modificar el Decreto 101/2012, de 19 de junio, de asistencia jurídica gratuita, aprobado por el Gobierno Vasco, teniendo en cuenta los problemas detectados en su aplicación por los Colegios de Abogados de Euskadi.

SEXTA.- Esta moción se remitirá a la Presidencia del Gobierno de España, al Ministerio de Justicia, a los Portavoces del Congreso de los Diputados, al Consejo General de la Abogacía Española, al Consejo Vasco de la Abogacía y a los Colegios de Abogados de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

Vitoria-Gasteiz, 5 de noviembre de 2012
EL PRESIDENTE

**Izp. / Fdo.: Juan Antonio Zárate Pérez de Arrilucea**

NAZARIO OLEAGA PÁRAMO JN. TXIT GORENA -
LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUKO PRESIDENTEA

EXCMO. SR. D. NAZARIO OLEAGA PÁRAMO -
PRESIDENTE DEL CONSEJO VASCO DE LA ABOGACÍA